

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 2504/2019 FORU AGINDUA, irailaren 3koa. Honen bidez, 2019ko ekitaldian euskara informazio eta komunikazioaren teknologietan egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, banakako enpresaburuei eta profesionalen zuzenduriko dirulaguntzen deialdia arautzen duen 2018ko abenduaren 18ko 174/2018 Foru Dekretuaren (2018ko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 244. zenbakia) arabera aurkeztutako diru-laguntza eskabideak ebazten dituena.

2018ko abenduaren 20an, 2019ko ekitaldian euskara informazio eta komunikazioaren teknologietan egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, banakako enpresaburuei edota profesionalen zuzenduriko diru-laguntzen deialdia egin zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko abenduaren 18ko 174/2018 Foru Dekretuaren bitartez. Dekretu honek aipatutako diru-laguntzak emateko hurrengo aurrekontu-mugak ezartzen ditu, 2019ko ekitaldiko aurrekontu-partiden kargura:

- G/0406/335106/44300/0000_2008/0040 aurrekontu-partida, ehun eta hogeita hamabost mila eurokoa (135.000,00 euro), merkataritza-sozietate, kooperatiba-sozietate, banakako enpresaburu eta profesionalentzako diru-laguntzak emateko.
- Eta G/0406/335106/45100/0000_2008/0040 aurrekontu-partida, hirurogeita bost mila eurokoa (65.000,00 euro) irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuentzako diru-laguntzak emateko.

Aipatutako foru-dekretuaren 19.1. oinarrian ezarritakoarekin bat, aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, aurrekontuko diru-izendapen horiek birbanatzeko kontuan hartu ziren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren abuztuaren 9ko 2390/2019 Foru Agindua eta abuztuaren 19ko 2416/2019 Foru Agindua. Birbanaketa hori —abuztuaren 26ko 6/2019 Iragarkiarene bidez— 2019ko irailaren 2ko (166 zenbakia) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta partida bakoitzeko aurrekontu-mugak finkatzeko zenbateko hauek ezarri ziren:

- Ehun eta hamalau mila seiehun eta laurogeita hamabost euro eta hirurogei zentimo (114.695,60 euro) 2019ko ekitaldiko 0406 G/335106/44300/0000_2008/0040 partidarako (merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, banakako enpresaburuak eta profesionalak).
- Eta laurogeita bost mila hirurehun eta lau euro eta berrogei zentimo (85.304,40 euro) 2019ko ekitaldiko 0406 G/335106/45100/0000_2008/0040 partidarako (irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak).

174/2018 Foru Dekretu arautzailearen 8. oinarriak xedatutakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak —foru-dekretu horren 11. oinarriaren arabera osatua— ebaluatu ditu aurkeztutako eskabideak, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari eskabide horien guztien ebazpen-proposamena igorri dio, azter zezan; hala jaso da 2019ko abuztuaren 5eko batzarraren Aktan.

I. eranskinean zehaztutako dirulaguntzak 174/2018 Foru Dekretuaren 9.1 oinarrian jasotako irizpideak aplikatuta lortu den puntuazioaren arabera ezarri dira. Lortutako puntuazioek diru-laguntza portzentaje ezberdinak aplikatzera eraman dute, 9.4 oinarrian xedatutakoarekin bat eginez.

174/2018 Dekretuaren 9.2 oinarriarekin bat eginez, Epaimahaiak dirulaguntza lortzeko atera beharreko puntuazio minimoa 55 puntuan jarri du irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuen kasuan, eta 50 puntuan, berriz, gainerako pertsona edo entitate onuradunen kasuan.



Azaldutakoaren ondorioz, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapen, antolaketa, araubide eta jardupideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i eta 67.1 artikuluek eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia eta arloko gainerako xedapenek Euskara, Kultura eta Kirolaren Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: 2019ko ekitaldian euskara informazio eta komunikazioaren teknologietan egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, banakako enpresaburuei edota profesionalei zuzenduriko diru-laguntzen deialdia arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko abenduaren 18ko 174/2018 Foru Dekretuaren arabera aurkeztu eta foru-agindu honen I. eranskinean azaltzen diren dirulaguntza-eskabideak onestea.

Bigarrena: II. eranskinean agertzen diren eskabideak ezestea, bertan agertzen diren zioengatik.

Hirugarrena: Euskara Zerbitzuari agintzea interesdunei behar bezala komunikatu diezaiela aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena, 174/2018 Foru Dekretuaren 12.4 oinarrian ezarritako ondorioetarako.

Laugarrena: Foru-agindu honen aurka, administrazio-bidea amaitzen baitu, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

Bosgarrena: Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Bilbon, 2019ko irailaren 3an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA



I. ERANSKINA / ANEXO I

IFZ NIF	Eskatzailea Solicitante	Proiektua Proyecto	Aurrekontu araztua Presupuesto depurado (€)	Puntuak Puntos	Emandako kopurua Importe concedido (€)
F95890638	A FILM TO KILL FOR. S. COOP. PEQUEÑA	Creación y difusión de las series digitales de ficción Zure Txanda Da y Otsoen Lurraldean	34.600,00	65	4.048,20
B95328985	ALIANZO NETWORKS, S.L.	Jokotuber	23.000,00	75	3.565,00
F95015897	ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA, S. COOP.	Euskara areagoTU	49.420,00	85	9.538,06
F95015897	ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA, S. COOP.	Solasbide	70.000,00	75	10.850,00
G95668521	ASOC PARA EL FOMENTO DEL USO SALUDABLE DE LAS TECNOLOGIAS DE LA INFORMACION Y LA COMUNICACION ESCUEL	Pentsapptu	39.425,00	70	9.304,30
G48304687	ASOCIACION BERBARO ELKARTEA	www.berbaro.eus	16.317,52	65	3.540,90
B95595641	BIDEGRAFIK EKOIZPENAK, S.L.L.	www.sinaturak.tv	66.250,00	70	9.010,00
A95463865	BILBO HANDIA IKUSENTZUNEZKOAK, S.A.	www.HamaKabilbo.tv	69.946,00	70	9.512,66
G95121489	BOSTAK BAT KULTUR ELKARTEA	Interneten bidez Azkue Fundazioan eskaintzen den 5000 Hiztegia aberastu eta eguneratu	58.800,00	55	10.525,20
G95641478	EKAI FUNDAZIOA	*ENTZUNI! Gai sozioekonomikoei buruzko BLOG-A ELIKATZEA	11.300,00	55	2.022,70
G95641478	EKAI FUNDAZIOA	LARUNBATAK EKAI FUNDAZIOAREKIN. GOIZEKO EMISIOA. JARRAIPENA 2019	12.700,00	55	2.273,30
F95583233	EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK, SDAD. COOP. EUROPEA	BITARRAK	60.980,00	60	12.074,04
F95583233	EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK, SDAD. COOP. EUROPEA	GAZTE DIGITAL ARDURATSUAK	57.318,00	65	12.438,01
G95573325	FUNDACION JESUS MARIA DE LEIZAOLA FUNDAZIOA	BIZKAIA STREAMING	8.500,00	55	1.521,50
G95573325	FUNDACION JESUS MARIA DE LEIZAOLA FUNDAZIOA	BIZKAIKO KONDAIRAK	17.413,14	55	3.116,95
B95189932	GESTIONET MULTIMEDIA, S.L.	Erizun, gogoratu eta antolatut!	40.600,00	75	6.293,00
B95189932	GESTIONET MULTIMEDIA, S.L.	HITZ GALDUAK	39.320,00	65	4.600,44
B95189932	GESTIONET MULTIMEDIA, S.L.	NI ERE MENDIZALE	42.600,00	65	4.984,20
B95189932	GESTIONET MULTIMEDIA, S.L.	PUNTUEN ATZEAN	39.925,00	60	3.912,65
B95189932	GESTIONET MULTIMEDIA, S.L.	M ETA M: GERNIKAKO ARBOLAREN LAPURRETA EBAZTEN	43.200,00	60	4.233,60
B95189932	GESTIONET MULTIMEDIA, S.L.	LURPERATUTAKO ALT XORREN BILA	41.250,00	60	4.042,50
B95274890	IRONTEC INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU LINUX, S.L.	HONDAKIMON, CAPTURA TODOS (LOS VERTIDOS)	54.681,20	80	9.514,53
B95274890	IRONTEC INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU LINUX, S.L.	Nire segurtasun digitala	49.213,08	80	8.563,08
B95274890	IRONTEC INTERNET Y SISTEMAS SOBRE GNU LINUX, S.L.	Gasolindegi	51.947,14	70	7.064,81
B95589008	MEDIA ATTACK GROUP, S.L.	MUJAK 2019	55.260,00	65	6.465,42
B95589008	MEDIA ATTACK GROUP, S.L.	Puntu Koma 2	55.440,00	70	7.539,84
G48218416	UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA U.E.U.	unibertsitatea.net	55.000,00	65	10.000,00
G48218416	UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA U.E.U.	INGUMA, EUSKAL KOMUNITATE ZIENTIFIKOAREN DATU-BASEA	72.500,00	75	18.487,50
GUZTIRA / TOTAL					199.042,39



II. ERANSKINA / ANEXO II

IFZ NIF	Eskatzailea Solicitante	Proiektua Proyecto	Atzera egindakotzat jotzeko arrazoia Motivo de desistimiento
G95703930	BERRIATUKO GOIKOLAU KULTUR ELKARTEA	EIMAKUMEA BERRIATUAN	Proiektuak ez du lortu gutxieneko puntuazioa (9.2 oinarria) El proyecto no ha obtenido la puntuación mínima (Base 9.2)
G95641478	EKAI FUNDAZIOA	MIKROENPRESEI ZUZENDURIKO WEBGUNEA ELIKATZEKO EGITASMOA	Proiektuak ez du lortu gutxieneko puntuazioa (9.2 oinarria) El proyecto no ha obtenido la puntuación mínima (Base 9.2)
G95641478	EKAI FUNDAZIOA	BIZKAIKO EKONOMIA ESKUALDEZ ESKUALDE. «Empresa estrategikoen mapa. ENKARTERRIA, BILBOALDEA ETA MUNGIALDEA»	Proiektuak ez du lortu gutxieneko puntuazioa (9.2 oinarria) El proyecto no ha obtenido la puntuación mínima (Base 9.2)
G95897153	FUNDACION ORIENTA ZAITEZ FUNDAZIOA	Europe Digital HUB (Transformación Digital)	Proiektuak ez du lortu gutxieneko puntuazioa (9.2 oinarria) El proyecto no ha obtenido la puntuación mínima (Base 9.2)
***6382**	EIBAR ZUGAZABEITIA EIDER	MAE IO UR	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)
***7057**	LATXAGA CORRALES ROBERTO	Baserritarrak	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)
B95386793	ELURNET INFORMATIKA ZERBITZUAK, S.L.	BLOGARIAK	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)
***0189**	MARTINEZ BURGOS JOSE MARIA	Euskera Quiz	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)
***0189**	MARTINEZ BURGOS JOSE MARIA	Escape Gela	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)
***0284**	VALLEJO ILARDUYA MARIA	MARGOLARIA FILM KULTURA ONTZI DIGITALA	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)
***7676**	GARCIA CENTENO JOSE IGNACIO	IHES EGIN 2	Proiektuak ez du lortu diru-laguntzaren gutxieneko zenbatekoa (9.5 oinarria) El proyecto no ha obtenido el importe de subvención mínimo (Base 9.5)